

ARRASATE MONDRAGON

UDAL GIDA / GUÍA MUNICIPAL

2013



Arrasateko Udala
Ayuntamiento de Mondragón

EROSKI

zurekin

ARRASATE HIPERMEKATUA
Musakola,s/n · Telf 943 711 030
www.grupoeroski.es

UDALAITZ
ARRASATE - MONDRAGÓN



SERVICIO POSTVENTA

Gipuzkoa etorbidea, nº36
Tlf: 943 71 18 70 · Fax: 943 71 18 71
20500 Arrasate

TERNUA
non gogoa, hian zangoa

Garapen arduratsua,
gure bidea.
Bazatoz gurekin?

www.ternua.com
Import: Arrasate, S.A · Kataide Pol. 25B · Tel. 943 71 20 34 · Arrasate

ATE KORAZATUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK

Barbero
ARROZTEGIA
CARPINTERÍA

Azeri kalea 3 ARRASATE
943 79 86 98 · 615 75 02 33

JUBAR[®]
ATEAK, S.L.




- Garajeko atea
- Segurtasunezko pertsianak
- Automatismoak konponketak
- Urrutiko agente tresna omologatuak
- Oinezkoen ateentzako sistema automatikoak



MOTORIZAZIOAK



PERTSIANAK



PILONAK

Kataide industrialdea 18 · Tel.: 943 79 10 20 · Faxe: 943 79 08 17
110 posta-kutxa · ARRASATE · jubarateak@euskalnet.net · www.jubarateak.com

AURKIBIDEA / INDICE

Datu orokorrak / Datos generales 5

Monumentuak / Monumentos 7

Jaiak / Fiestas 11

Historia / Historia 13

Udalbatza / Corporación Municipal 16

Arreta Zerbitzua 17

Kultura / Cultura 17

Gizarte Zerbitzuak / Servicios Sociales 18

Hezkuntza / Educación 19

Euskara / Euskara 22

Ingurumena / Medio Ambiente 22

Gazteria Salla / Área de Juventud 23

Berdintasun Salla / Área de Igualdad 24

Enplegua / Empleo 25

Osasuna / Sanidad 33

Kirolak / Deportes 36

Telefono interesgarriak / Telefonos de interés 39

Garraio bideak / Transportes 39

Zerbitzuak eta profesionalak / Servicios y profesionales 39

Merkataritza gida / Guía comercial 42

Automobilaren gida / Guía del automóvil 46

Gremioen gida / Guía de gremios 47

Industria / Industria 49

Ostalaritza / Hostelería 53

AURKEZPENA / PRESENTACIÓN

Ongi etorri!!

Arrasatearrokinekonektatzeko leiho berri bat zabaldu duzu; gure historia, kultura, natura, zerbitzuak eta beste hainbat informazio zure eskura izateko gida berria.



Gure herria ezagutzeko gogoz bisitatu bagaituzu, orriz orri erraz topatuko duzu Arrasateren nortasuna, iraganetik gerorantz daramagun norabidea jarraituz. Etxekoa edo ingurukoa bazara, berriz, laster antzemango duzu hemen edozer informazio di-da batean topatu deitekeela.

Horixe izan da, behintzat, gure asmoa; kanpokoentzat eta etxekoentzat praktikoa eta lagungarria izatea.

Ea leiho berri hau askotan zabaltzen dugun, informazio onak denok bira gaitzan!

Ongi etorri!!

Con el fin de conocer Arrasate has abierto esta nueva ventana que te ofrece información sobre la historia, la cultura, la naturaleza...de nuestro pueblo, así como otros servicios y actividades que te ayudarán a conocernos mejor, tanto si eres vecino como si estás de visita.

Te invito a conocer nuestra villa, a pasear por Arrasate.


Espero que el contenido de esta guía sea de tu interés y te ayude a encontrar la información que necesitas, un cordial saludo.

Inazio Azkarragaurizar Larrea
Arrasateko Alkatea

KOKAPEN MAPA / MAPA DE SITUACIÓN

- **Lurralde historikoa:** Gipuzkoa
- **Eskualdea:** Debagoiena
- **Hedadura:** 34,20 km²
- **Biztanleria:** 22.027

- **Territorio histórico:** Gipuzkoa
- **Comarca:** Alto Deba
- **Extensión:** 34,20 km²
- **Población:** 22.027 habitantes



DATU OROKORRAK / DATOS GENERALES

Arrasate (34,20 km²) Euskal Autonomia Erkidegoko erdialdean dago, Gipuzkoako hego-mendebaldean, Debagoieneko eskualdean, hain zuzen ere. Arrasateko herrigunea 211 m-ra dago itsas mailaren gainetik. Kostaldetik 41 km-ko distantziara dago; Donostia ere ez dago urrun, 75 km-ra.

Arrasateko udalerrriaren inguruan udalerrri hauek ditugu: Iparrean muga egiten du Elorrio eta Bergara udalerriekin, hegotik Aretxabaletarekin, ekialdetik Oñatirekin eta mendebaldetik Aramaio udalerriarekin.

Arrasateko udalerrria Deba eta Aramaio errekek eta errekatxo batzuek zeharkatzen dute, eta "V" formako haran estu eta malkartsuak ditu. Edozelan ere, mendi gehienak altitude txikikoak dira, mendi hauek izan ezik: Udalatx (1.117 m), Murugain (778 m) eta Kurtzetxiki (532 m). Erlieba hain bihurtunetsua denez, ez dago lautada asko eta horietan herriguneko edo industrialdeak daude. Baserri asko eta asko aldapan daude. Bestalde, udalerriko lursailak hiru motakoak dira: Kareharrizkoak, harea harrizkoak eta buztinezkoak, eta klima hezearen laguntzaz landare berdez inguratutako herriguneko.

Arrasateko klima nahiko hezea edo umela da eta, oro har, itsasaldeko klima epelaren ezaugarriak ditu. Hau da, uda beroak eta negu hotzpeleak ditu. Temperaturak 22° C eta 10° C artean dabilta. Mendebaldeko eta ipar-mendebaldeko haizeak dira nagusi. Haizeok umelak eta hotzak dira, eta horregatik urtean egun lainotsu eta goibel ugari izaten dugu. Hala ere, batez ere udan, hegoaldeko haizearen ondorioz, temperaturak gora egiten du eta ekaitzak sortzen dira, itsasoko urearen kondentsazio azkarrarengatik.

Arrasate (34,20 km²) está ubicada en la zona central de la Comunidad Autónoma Vasca, al sudoeste de la provincia de Gipuzkoa, en la comarca del Alto Deba. El núcleo urbano de Arrasate se encuentra a 211 m por encima del nivel del mar. La distancia que nos separa de la costa es de 41 km, Donostia tampoco se encuentra lejos, a 75 km.

Alrededor del término municipal de Arrasate se encuentran los siguientes municipios: Por el norte linda con los municipios de Elorrio y Bergara, por el sur con Aretxabaleta, por el este con Oñati y por el oeste con el municipio de Aramaio.

El municipio de Arrasate está atravesado por los ríos (Deba y Aramaio) y algunas regatas, originándose valles estrechos y abruptos en forma de "V". No obstante, la mayoría de los montes son de pequeña altitud, con la excepción de Udalatx (1.117 m), Murugain (778 m) y Kurtzetxiki (532 m). Siendo el relieve tan tortuoso las llanuras no son abundantes y están ocupadas por zonas urbanas o por zonas industriales. Muchos de los caseríos están ubicados en pendientes. Por otra parte, las tierras del municipio son de tres tipos: de piedra caliza, de arenisca y de arcilla, y con la ayuda del clima húmedo el núcleo urbano se encuentra rodeado de verde vegetación.

El clima de Arrasate es bastante húmedo y, en general, sus características se corresponden con las del clima oceánico templado. Esto es, los veranos suelen ser cálidos y los inviernos suaves. Las temperaturas oscilan entre los 22° C y 10° C. Los vientos que más abundan son de dirección oeste y noroeste. Estos vientos son húmedos y fríos, y por esto durante el año los días nubosos y cubiertos son abundantes. Sin embargo, sobre todo en verano como consecuen-



Biztanleriari dagokionez, 2012an Arrasateko udalerrriak 22.027 biztanle zuen, gehienak erdialdea osatzen duten azuoetan.

Jarduera ekonomikoari erreparatzen badiogu, jakina da langile gutxien lehen sektoreak biltzen duela. Edozein modutan ere, Arrasaten industria da jarduera ekonomiko-rik inportanteena, zehazki metalurgia. Hiru dira arlorik azpimarragarrienak: Sarrailagintza, mekanizatuak eta etxe-tresna elektrikoak. Azken arlo horretan Fagor taldea dago, euskal kooperatiben aitzindaria. Edozelan ere, nahikoa da begiratzea zenbat kooperatiba dagoen jarduera batzuetan zein ugaria den konturatzeko. Hirugarren sektorean ere badihardute. Adibidez, hauek aipatu ditzakegu: Arrasateko Euskadiko Kutxa, Mondragon Unibertsitatea edo Hiper Eroski. Enpresa horiek guztiak Mondragon taldekoak dira, bailarako langile gehienak hor baitabilta, eta batez ere udalerrikoak. Era berean, osasun eremua aipatu behar dugu hirugarren sektorearen barruan, eta hor nabarmendu behar ditugu eskualdeko ospitaleaz gain San Juan de Dios eta Aita Menni ospitaleak Gesalibarren. Erdialdeko merkataritza lbaierateak ordezkatzen du, eta hor batzen dira Arrasateko erdialdeko denda gehienak. Aisialdiaren eskaintza ostalaritzako zerbitzuek (tabernak, ostatuak eta hotelak, eta jatetxeak...) osatzen dute.

Bi errepide nagusi pasatzen dira Arrasatetik: AP-1 autopista eta Beasain-Durango autobidea.



cia del viento sur, la temperatura asciende, y se forman tormentas por la rápida condensación del agua del mar.

En relación con la población, en 2012 el municipio de Arrasate tenía una población de 22.027 habitantes, la mayoría en los barrios que forman el centro urbano.

Si nos fijamos en la actividad económica, queda claro que es el sector primario el que reúne menos trabajadores. En cualquier caso, la industria es la actividad económica más importante en Arrasate, concretamente la metalurgia. Son tres los campos más subrayables: la cerrajería, los mecanizados y los electrodomésticos. En este último campo se encuentra el Grupo Fagor, pionero de las cooperativas vascas. No obstante, basta con fijarse en la presencia que tienen las cooperativas en algunas actividades para darse cuenta de su diversidad. También ocupan un lugar en el sector terciario. Podríamos mencionar por ejemplo: Caja Laboral, Mondragon unibertsitatea o Hiper Eroski de Arrasate. Todas estas empresas son parte del grupo Mondragón, entidad en la que trabaja la mayoría de trabajadores del valle, y sobre todo del municipio. Del mismo modo, hay que hacer mención dentro del sector terciario al área sanitaria en el que destacan además del Hospital Comarcal, los Hospitales San Juan de Dios y Aita Menni en el barrio de Santa Agueda. El desarrollo comercial en el centro urbano está representado por la Asociación, Ibaierate, que reúne la mayoría de comercios del centro de Arrasate. Los servicios de hostelería (bares, hostales y hoteles, y restaurantes...) completan la oferta de ocio.

Comunicaciones. Son dos las carreteras importantes que pasan por Arrasate: La autopista AP-1 y la autovía Beasain-Durango.

**Arrasateren eta Euskal Herriko hiriburuen arteko distantziak (km-etan)
Las distancias entre Arrasate y las capitales del País vasco (en km)**

ARRASATE	Donostia / Donostia	Gasteiz / Gasteiz	Bilbo / Bilbao	Iruñea / Pamplona	Baiona / Baiona
	75	39	55	125	121

Alde zaharra, monumentu deklaratu, hasiera batean harrisepean zegoen, San Barbara gazteluaren azpian. Gaurko egunean hasierako egitura mantentzen du, baina ez gaztelua. Hiru kalek osatzen dute alde zaharra, eta hirurak maldan daude. Erdiko kalea da zuzen doan bakarra, beste biek, Ferrerías eta Iturriotz, forma borobildua dute eta itxura obalatu ematen diote. Beheko atea edo portaloia da garrantzitsuena, Maalako errebalaren aurrealdean dago eta hor batzen dira alde zaharreko hiru kaleak. Zurgin kantoia da zaharrena eta hirugarrena Kanpatorpea.

San Juan Bataiatzailea parrokiari buruzko lehen berria 1355ekoa da. Eraikinak estilo gotikoa du, baina kanpandorreko errematea klasikoa da, Errenazimentukoa. Gurutze latinoaren itxura du, hiru nabe eta abside bat. Kanpoaldetik begien bistakoak dira arkitektura gotikoaren ezaugarriak. Hiru ate ditu, nagusia kanpandorreko arkupean dago, ia ez dute dekoraziorik eta arbolten bidez turuta itxura lortzen dute. Teilatuan gargola edo xurrutari batzuk ikusi daitezke, animalia forma dutenak: basurdea, tximinoa, otsoa... Elizaren perimetro osoan, kontrahormak ikusiko ditugu, gangako pisua lurrera transmititzen laguntzen dutenak.

Barrualdean, hala ere, hiru nabeak ikusi daitezke, eta erdiko nabea albokoak baino altuagoa eta zabalagoa da. Halaber, nabarmena da gurutzadura. Estilo honetako eliza guztiak bezala, koloma ezarriek inguratutako zutabeak eta abside poligonal bat ditu. Azkenik, gurutze gangez estalita daude nabeak, eta klabeak dekoraturik daude, besteak beste, irudi erlijiosoz, izarrez eta dragoiez.

Elizaren elementuen barruan, erretablek dute garrantzirik handiena. San Juanen bi erretablea ditu parrokiak: bata Errenazimentu garaikoa da eta bestea Barroko garaikoa. Horiekin batera, eskultura exentu batzuk ikusi daitezke, hala nola, San Juanen irudi barrokoa. Beirteak ikusi ditzakegu, eta korua ere bai, estilo gotikoa duena.

1990eko hamarkadan egindako erreformaren ostean, tenpluaren itxura aldatu egin zen guztiz, kanpoaldean nahiz barrualdean.

San Frantzisko komentua Joan de Araoz Uriartek, Arrasateko bizilaguna, bultzatutako obra bat izan zen, eta frantziskotarren komentu guztiak bezala ez du dekoraziorik, izan ere, pobrezia da ordena horren botoetako bat. Lehen kaper XVI. mendekoa zen. Tenplua, estilo herrerrianokoa, Frai Miguel Aranburu arkitektoak eraiki zuen. Bergarako Jacobo Aieta eta Rafael Sarralde maisuek egindako erretableaz dekoratu zuten elizaren barrualdea, eta, gainera, beste eskultura eta pintura batzuk ere gordetzen ditu, adibidez, Errenazimentu garaiko Kristo gurutzilatua.

Iturriotz kalean Bañez Artazubiaga jauregia dago. Jatorrizko etxea XVI. mendekoa da eta gaur egun aurrealdeko fatxada harlanduzkoa ikusi daiteke. Beheko solairuan atearen albo bietan ordena jonikoko bi zutabe daude, eta gainetik latinezko inskripzio bat: "Solus labor parit virtutem; sola virtus parit honorem" (lanaren bidez lortzen da bertutea, eta bertuteaz ohorea). Goiko solairuan nabardura manieristak ikusi ditzakegu, frontoia hautsita baitago erdian, Bañezta-

El casco histórico declarado conjunto monumental estaba originalmente amurallado y se encontraba debajo del castillo de Santa Barbara. Hoy por hoy mantiene su estructura original, no así el castillo. Son tres las calles que conforman la villa, y las tres están en cuesta. Erdiko kale es la única calle recta, las otras dos, Ferrerías y Iturriotz, tienen forma redondeada y dan apariencia ovalada. De los cinco accesos existentes en su día en Arrasate, en la actualidad se mantienen solamente tres. El Portal de abajo o Portalón es el más importante, se ubica delante de la calle Maalako errebala donde se fusionan las tres calles del casco histórico antiguo. El más antiguo corresponde a Zurgin kantoí y el tercero es el de kanpatorpea.

La primera noticia sobre la Parroquia de San Juan Bautista data del año 1355. El edificio pertenece al estilo gótico, pero el remate del campanario es clásico, del renacimiento. Tiene planta de cruz latina, tres naves y un ábside. Desde el exterior resultan evidentes las características de la arquitectura gótica. Posee tres puertas, la principal se ubica en el pórtico del campanario, presentan escasa decoración y a través de arquivoltas consiguen un aspecto abocinado. En el tejado se pueden observar unas gárgolas en formas de animales: jabalí, mono, lobo... En todo el perímetro de la iglesia, se aprecian también contrafuertes que ayudan a transmitir el peso de la bóveda al suelo.



San Juan Bataiatzailea Parrokia / Parroquia de San Juan Bautista

En el interior, sin embargo, se pueden observar las tres naves, siendo la nave central más alta y ancha que las laterales. Así mismo, es notable el crucero. Como todas las iglesias de este estilo, presenta pilares rodeados por columnas adosadas y un ábside poligonal. Por último, las naves se encuentran cubiertas por bóvedas de crucería y las claves están decoradas, entre otras, por figuras religiosas, por estrellas y por dragones.

Dentro de los elementos de la iglesia, los retablos son los de mayor trascendencia. La parroquia presenta dos retablos de San Juan: Uno pertenece al renacimiento y el otro al barroco. Junto a éstas se pueden admirar algunas esculturas exentas, como la imagen barroca de San Juan. Podemos



San Frantzisko Komentua / Convento de San Francisco

rren armarria tailatzeko. Armarriak, gainera, oinetxearen jatorria erakusten du. Bañeztarrek Bedoñako dorretxea erre zuten eta jauregi berria eraiki herrian, Oñatiko kondearen mendekotasunetik ihes egiteko.

Monterron jauregia XVII. mendean eraiki zuten. Kubo forma du eta estilo herrerrianoa. Jauregiaren fatxadak ia ez du dekoraziorik, bi armarri bakarrik agertzen baitira: Batetik, Andiako-Zelaa Araguren-ekoa eta, bestetik, Unzuetaarena. Jauregiko atartearen lurzoruan, errekarritz osatutako mosaiko litostrato bat ikusi daiteke (gaur egun behin-behinekoz estalita), eta sabai kasetoiez apainduak eta zurezko zutabeak.

Baina agian Monterron jauregiko lorategia da elementurik interesgarriena. Espezie botaniko ugari dago eta gainera bereziak dira, adibidez, sekuoia erraldoi bat, 38 m altuera duena.

Okendo jauregia XVII. mendean eraiki zuten eta Maalako errebaletan dago. Fatxada harlanduzkoa du eta esan daiteke estilo herrerrianoa dela. Eraikinean bi armarri ikusi dezakegu, baina inportanteena Barrutiaren armarria, lehen solairuan dagoena da. Itxura ez du oso luxuzkoa, eta dekorazio bakarra du, balkoi azpian dauden mentsulak.

Andiako Zelaa eta Loyola Oñaz Irazabal jauregia Herriko plazan dago. XVII. mendekoa da eta estilo herrerrianoa da. Fatxadan, erdi ezkutaturik, familiaren armarriak agertzen dira. Baina estilo neogotikoan eraikitako zurezko galeria da eraikineko elementurik ikusgarriena.

Udaletxearen eraikina barroko-rokoko da, Martin de Carrerak eraikia XVIII. mendean. Fatxadan atarte bat du, bost arkuz osatua, eta horien gainean hiru solairu. Elorriko Rafael Amezola artisauak egin zuen balkoietako eta eskaileretako burdinazko saretak. Eskailera hori eraikinaren erdian dago, linterna txiki baten azpian. Oso interesgarriak dira, batetik, udalerriaren armarria eta, bestetik, osoko bilkuren aretoan agertzen den kasetoidura.

observar vidrieras y, también, el coro con estructura de la época gótica.

Tras la reforma llevada a cabo en la década de 1990, la apariencia del templo cambió por completo, tanto en el exterior como en el interior.

El convento de San Francisco fue una obra impulsada por Joan de Araoz Uriarte, vecino de Arrasate, y como todos los conventos de los franciscanos, no tiene decoración, puesto que la pobreza es un voto de esta orden. La primera capilla era del siglo XVI, el templo de estilo herrerriano fue construido por el arquitecto frai Miguel Aranburu. El interior de la iglesia fue decorado con el retablo elaborado por los maestros Jacobo Aierta y Rafael Sarraide de Bergara, y además también guarda otras esculturas y pinturas, por ejemplo, el Cristo crucificado de la época del renacimiento.

En la calle Iturriotz se encuentra el palacio Bañez Artazu-biaga. La casa original pertenece al siglo XVI y actualmente podemos observar la fachada delantera de sillería. En la planta inferior se presentan a cada lado de la puerta dos pilastras de orden jónico, y por encima una inscripción en latín: "Solut labor parit virtutem; sola virtus parit honorem" (a través del trabajo se consigue la virtud, y con la virtud el honor). En el piso superior pueden observarse matices manieristas, puesto que el frontón se encuentra roto en el centro para tallar el escudo de los Bañez. El escudo muestra, además, el origen de esta casa solariega. Los Bañez quemaron la casa torre de Bedoña y construyeron el nuevo palacio en la villa, con el objeto de alejarse de la dependencia del conde de Oñati.

El palacio de Monterron fue construido en el siglo XVII. Presenta forma de cubo y pertenece al estilo herrerriano. La fachada del palacio muestra escasa decoración, ya que aparecen solamente dos escudos: Por un lado el de Andiako-Zelaa Aranguren, y por otro el de Unzueta. En el



Bañez Artazu-biaga Jauregia / Palacio Bañez Artazu-biaga



Monterron Jauregia / Palacio de Monterron

Gainera, badira beste eraikuntza interesgarri batzuk Arrasateko erdialdean: Erdiko kalea 54ko eraikina, sokeko dekoratutako arkuak; Adan de Yarza jauregia, Seber Altube plaza 9an, armarriaz dekoratutako eraikin arrunta; Garibai etxea, Arano eta Garcia maisu-maistrak kalean, Garibairen armarriaz dekoratutako; eta Zaldirako dorrea, Zaldirako kalea 1ean, arku behekatuko sarrera batekin eta aurrealdean idi-begi batez apaindua. Gainera, eskultura exentuek eta eskultura multzoak ditugu, gune publikoak apaintzeko. Adibidez, Biteri monumentua edota Jorge Oteizaren 'Arri ernai zaintzailea' eskultura.

Auzoetan beste interesgune batzuk ditugu:

Bedoña auzoan, Santa Eulalia elizan, arte erromanikoaren aztarnak ditugu.

Garagartza auzoan, Lezetxiki eta Kobandi kobazuloez gain, San Migel eliza ikusi dezakegu. Eliza horrek herrian ditugun erretaula onenetako bat gordetzen du bere barruan.

Gesalibar auzoan, Santa Ageda elizan, erretaula erromanista interesgarria ikusi dezakegu. Cánovas del Castillo hil zuteneko bainuete zaharra, monumentu deklaratu, orain ospitale psikiatrikoa da.

Meatzerreka auzoan, San Balerio ermitan zurezko sabai polikromatua nabarmenduko dugu; XV. mendean eraikia, Meatzerrien Kofradiaren egoitza izan zen.

Udala auzoan San Esteban parrokia eta auzotik gertu Besaideko monumentua, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba probintziak bat egiten duten puntu geografikoa.

Azkenik, Uribarri auzoan bisitatu ditzakegu, batetik, Itxaropena amabirjinaren eliza eta, bestetik, Gorostiza baserria.

suelo del vestíbulo del palacio, se puede observar un mosaico litostrato compuesto por cantos rodados (hoy en día provisionalmente cubierto), así como techos artesonados y columnas de madera.

Pero quizás sea el jardín del palacio de Monterron el elemento de más interés. Hay numerosas y peculiares especies botánicas, por ejemplo una sequoia gigante de 38 m. de altura.

El palacio de Okendo fue construido en el siglo XVII y se encuentra en Maalako errabala. La fachada contiene una sillería y se puede considerar de estilo herrerriano. Se pueden apreciar dos escudos en el edificio, pero el más impresionante, el escudo de Barrutia, ubicado en la primera planta. De apariencia poco lujosa, la única decoración son las ménsulas que se aprecian debajo de los balcones.

El palacio de Andiako Zelaa y Loyola Oñaz Irazabal se encuentra en la Herriko plaza. Pertenece al siglo XVII y es de estilo herrerriano. En la fachada, medio escondidos, aparecen los escudos familiares. Pero el elemento más espectacular del edificio es la galería de madera construida en el estilo neogótico.

El edificio de la casa consistorial es de barroco rococó, construido por Martin de Carrera en el siglo XVIII. En la fachada existe un pórtico compuesto por cinco arcos y encima de estos tres plantas. Fue el artesano Rafael Amezola de Elorrio quien realizó las celosías de hierro de los balcones y de las escaleras. Esta escalera está situada en el centro del edificio, debajo de una pequeña linterna. Son muy interesantes, por una parte, el escudo del municipio y por otra el artesonado que aparece en el salón de plenos.

Además, existen otras edificaciones de interés en la zona centro de la villa de Arrasate: Edificio de Erdiko kalea 54, con arcos decorados con cuerdas; el palacio de Adan de Yarza, en el nº 9 de Seber Altube plaza, edificio simple decorado con escudo; la casa Garibai, en la calle Maisu Arano, decorado con el escudo de Garibai; y la torre de Zaldira, en Zaldira kalea nº 1, con una entrada de arco rebajado y



Okendo Jauregia / Palacio Okendo



San Esteban Parrokia / Parroquia de San Esteban

el frente engalanado con un óculo. Pero existen, además, esculturas exentas y conjuntos escultóricos para adornar los espacios públicos. Por ejemplo, el monumento de Viteri o bien la escultura Arri emai zaitzailea de Jorge Oteiza.

En los barrios encontraremos otros espacios de interés: En el barrio de Bedoña, en la iglesia de Santa Eulalia, encontraremos indicios de arte románico.

En el barrio de Garagartza, además de las cuevas de Lezetxiki y de Kobauendi, podemos admirar la iglesia de San Miguel. Guarda esta iglesia en su interior uno de los mejores retablos que existen en el municipio.

En el barrio de Gesalibar, en la iglesia de Santa Ageda, se puede observar un retablo romanista interesante. El antiguo balneario donde fue asesinado Cánovas del Castillo, declarado conjunto monumental, es en la actualidad hospital psiquiátrico.

En el barrio de Meatzerreka, destaca en la ermita de San Valerio el techo policromado de madera; construida en el siglo XV sirvió de sede a la Cofradía de Mineros.

En el barrio de Udala la parroquia de San Esteban y próximo al barrio los monumentos de Besaide, punto geográfico donde se unen las provincias de Gipuzkoa Bizkaia y Araba

Por último, se pueden visitar en el barrio de Uribarri, la iglesia de Nuestra Señora de la Esperanza y el caserío Gorostiza.

Santa Ageda eliza / Iglesia de Santa Ageda



Herriko jai nagusiak Sanjuanetan ospatzen dira. Ekainaren 23tik 26ra bitartean. Azken urteotan ekainaren 23an, San Juan bezperan, egiten den Errementari Dantzak lortu du arrakasta itzela... San Juan suaren inguruan dantzatzen den San Juan zortzikoarekin bukatzen da Errementari Dantza eta bertan Arrasateko Dantza taldeek, Arrasateko Musikaleko musika bandak, Txistulari taldeak, Arrasateko Gaiteroek, trikitilariak, albokalariek eta txalapartariak parte hartzen dute. Ekainaren 26ra bitartean hainbat ekintza antolatzen dira: tanborrada, Dragoi Jana (herri-afaria), musika eta dantza emanaldiak, haurrentzako ekintzak, antzerkia, dantzaldiak.

SANTAMASAK

Abenduaren 22an ospatzen da Santo Tomas FERIA Arrasaten. Egun honetan nagusi dira baserriko produktuen salmenta eta erakusketa hainbat, lehiaketa (fruta, barazki), artisau langintzen erakusketa, herri kirolak, kalejirak,...



Las fiestas mayores del municipio se celebran los días de San Juan. del 23 de junio hasta el 26 de junio. La Errementari dantza que se celebra en la víspera de San Juan, 23 de junio, durante estos últimos años ha logrado un grandioso éxito. Esta danza termina con el zortziko de San Juan bailado en torno al fuego de San Juan y en este baile participan numerosos grupos del municipio, los grupos de bailes de Arrasate, la banda de música de Arrasate Musical, grupos de txistularis, gaiteros de Arrasate, trikitilaris, albokalaris y txalapartaris. Se organizan diferentes actos hasta el 26 de junio: Las tamborradras, Dragoi Jana (cena popular), actuaciones musicales, actos dirigidos a la población infantil, teatro, bailes...

DÍA DE SANTO TOMÁS

La feria de Santo Tomás en Arrasate se celebra el 22 de diciembre. Durante este día se venden y exponen productos del caserío, se celebran diferentes concursos (de fruta, hortalizas), exposición de artesanía, deporte rural, pasacalles, ...



DÍA DE MARITXU KAJOI

A partir del año 1977 el primer viernes de octubre se celebra el día de Maritxu Kajoi. La imagen de Maritxu Kajoi y patrona de los chiquiteros es la imagen de la Virgen del Rosario situada en Erdiko kalea. Este día es costumbre salir bien vestido, elegante.

FIESTAS DE LOS BARRIOS

Los barrios y dos calles del municipio celebran sus fiestas en las fechas que a continuación se indican con un amplio programa de fiestas, y no faltan los juegos infantiles y la música.

- 29 de enero, San Valerio en Meatzerreka
- 5 de febrero, Santa Ageda en Gesalibar
- 1 de mayo, en San Andres
- 15 de mayo, San Isidro en Musakola
- 18 de julio, Santa Marina en el barrio de Santa Marina
- 22 de julio, Maria Magdalena en la calle de Maalako Errebala

MARITXU KAJOI EGUNA

1977tik aurrera urriko lehen egubakoitzean ospatzen den txikiteroen jaiak da Maritxu Kajoi eguna. Erdiko kalean dagoen Errosarioko Amabirjinaren irudia da Maritxu Kajoi eta txikiteroen zaindaria. Egun horretan ohitura da Dotore jantzita irtetea.

AUZOETAKO JAIK

Auzoetan eta herriko bi kaletan jaiak ospatzen ditugu, hemen aipatzen diren egunetan; jai egitarau trinkoa dute, tartean haurrentzako jolasak eta musika.

- Urtarrilak 29, Meatzerreko San Balerio
- Otsailak 5, Gesalibarren Santa Ageda
- Maiatzak 1, San Andres
- Maiatzak 15, Musakolan San Isidro
- Uztaialak 18, Santa Marina auzoan Santa Marina
- Uztaialak 22, Maalako Errebalan Maria Magdalena
- Uztaialak 26, Ferrerías kalean Santa Ana
- Uztaialak 31, Kanpanzarren San Inazio
- Abuztuak 3, Udalan San Esteban
- Abuztuak 24, Uribarrin San Bartolome
- Irailak 29, Garagartzan San Migel
- Abenduak 10, Bedoñan Santa Eulalia

TRADIZIOAK

SANTA AGEDA EGUNA

Otsailaren 5an da. Bezperan, hilaren 4an koroek kalera irteten dute kantuan diru eske. Santa Agedako koplak abesten dituzte eta lortutako dirua ongizaterako izaten da.

■ San Nikolas Abenduaren 6an ospatzen da. Goizean zehar haurrek kalez-kale San Nikolas kantua abesten dute eta etxeetatik eta Udaletxeko balkoitik Bolo-Boloa egiten dute: gaztainak, intxaurrak, gozokiak, litxarrerria, txanponak, ...



- 26 de julio, Santa Ana en la calle Ferrerías
- 31 de julio, San Ignacio en Kanpanzar
- 3 de agosto, San Esteban en Udala
- 24 de agosto, San Bartolome en Uribarri
- 29 de septiembre, San Miguel en Garagartza
- 10 de diciembre, Santa Eulalia en Bedoña



TRADICIONES

DÍA DE SANTA AGUEDA

El día de Santa Agueda se celebra el 5 de febrero. En la víspera, 4 de febrero, los coros salen a la calle a cantar y pedir limosna. Cantan las coplas de Santa Agueda y el dinero obtenido se utiliza para bienes sociales

■ Con fecha de 6 de diciembre se celebra la festividad de San Nicolás. Durante la mañana las niñas y niños cantan la canción de San Nicolás por las calles del municipio y desde balcones de domicilios y desde el balcón principal de la casa consistorial se celebra el bolo-bolo: castañas, nueces, caramelos, chucherías, monedas, ...

Orain arte garatutako arkeologia ikerketek erakusten dute Arrasateko historiaurreko herentzia oso interes handikoa dela. Paleolito garaiko giza aztarnak aurkitu dituzte hainbat kobazulotan, bai eta tresnak eta animalia hezurak ere. Esaterako, Lezetxikin aurkitutako humeroa azpimarratuko dugu: Euskal Herrian ezagutzen dugun giza aztarnarik zaharrena da. 150.000 urte inguru du eta "Homo Heidelbergensis" espeziekoa da. Halaber, goi paleolito garaiko giza presentziaren testigantza utzi digute Labeko Koba zen leizean aurkitutako aztarnak.

Murugain mendi gailurrean aurkitutako aztarnak Brontze Garaikoak dira; azalera txikiko eta estrategikoki kokatutako harresidun populazio gune bat da.

Gaztelako erresumak Gipuzkoako lurraldea konkistatu eta gero, XIII. mende hasieran hiri agiri fundazionalak eman zituzten Gaztelako errege-erreginek, erregearen agintaritzak baiesteko eta kostaldearen eta Gaztelako hiriburuaren arteko merkataritza bideak handitu eta babesteko. Testuinguru horretan Alfonsito X. Jakitunak Mondragoni Hiri Gutuna eman zion 1.260an. Agiri hark Vitoriako forua eman zion hiriri eta jatorrizko izena (Arresate) aldatu zuen eta Mondragon jarri.

Udala, Uribarri, Garagartza eta Gesalibarko elizateak, 1353ko urtean, herriari batu zitzaizkion eta azkenik, 1966an, Bedoña auzoa atxiki zitzaion Arrasateko udalerrira; horrela bukatu zen oraingo udalerrriaren eraketa.

XIV. mendean bandoen arteko borrokak hasi ziren, nekazaritza guneak kontrolatzeko. Bandoak –Guraia (Oñaztarrak) eta Bañez (Ganboatarrak)- Arrasateko suterik handienaren protagonistak izan ziren. Sutea 1448ko ekainean gertatu zen, eta haren ondorioz, Errege Katolikoek bandoak abolitu zituzten 1490ean, eta Gipuzkoako korrejidoreak ordenantza berriak egin zituen Arrasateko udal erregimenarentzat.

XVI. eta XVII. mendeetan bakea eta oparotasun ekonomikoa izan ziren nagusi. Ahaide nagusiek protagonismoa galdu zuten, hirietako oligarkien mesedetan. Horiekin batera pertsonaia ospetsuak agertu ziren, hala nola, Garibai, Barrutia edo Okendotarrak. Bien bitartean, herriaren itxura aldatzen ari zen, eta harresitik kanpo Maalako eta Zarugaldeko errebalak eraiki zituzten.

XVIII. mendea eta, batez ere, XIX. mendea gatazkatsuek izan ziren. Matxinaden helburua izan zen oinarritzko beharrak betetzen zituzten produktuen prezioen igoerari aurre egitea. Garai hartan gerra bat baino gehiago izan genuen Euskal Herrian Frantziaren aurka. Konbentzioaren gerra, Frantziako iraultzaren aurka, 1793an hasi zen, Frantziako erregea gillotinatik pasatu eta gero. Une hartan frantsesek Gipuzkoa hartu zuten indarrez eta Gipuzkoako foruetan azaldu bezala, Gerra Diputazioa eratu zuten Arrasaten, lurraldea inbasioez defendatzeko. Urte batzuk geroago, 1807az geroztik, Napoleon-en armada sartu zen Gipuzkoan eta tropek berriro kanporatu behar izan zuten armada frantsesa. Baina, agian, karlistadak izan dira gerrarik garrantzitsuenak, gipuzkoarentzat foruak galtzea ekarri baitzuten. XIX. mendearen bukaera aldera -1897ko

Las investigaciones arqueológicas desarrolladas demuestran que la herencia prehistórica de Arrasate es de gran interés. En varias cuevas han sido hallados restos humanos de la era paleolítica, así como instrumentos y huesos de animales. Por ejemplo, hay que destacar el húmero descubierto en Letzetxiki: es el resto humano más antiguo que se conoce en el País Vasco. Tiene una antigüedad de entorno a 150.000 años y es perteneciente a la especie "Homo Heidelbergensis" Así mismo, los restos hallados en la desaparecida cueva de Labeko Koba nos han dejado testimonio de la presencia humana durante el Paleolítico superior.

Los restos encontrados en la cima de Murugain pertenecen a la Edad de Bronce; se trata de un núcleo de población amurallado de pequeña extensión y situado estratégicamente.

Tras la conquista del territorio guipuzcoano por el Reino de Castilla, se inicia a principios del s XIII el otorgamiento por parte de los reyes castellanos de documentos fundacionales de villas con objeto de confirmar la autoridad del rey y de ampliar y proteger las vías de comercio entre las costa y las capitales de Castilla. En este contexto Alfonso X el Sabio otorga en 1.260 la Carta Puebla fundacional de Mondragón. Dicho documento concede a la villa el fuero de Vitoria y modifica el nombre original de "Arresate" por el de Mondragon.

En el año de 1353 las anteiglesias de Udala, Uribarri, Garagartza y Gesalibar se sumaron a la villa y finalmente, en el año 1966, se produce la adhesión del barrio de Bedoña al municipio de Arrasate; se culmina así la formación del actual término municipal.

En el siglo XIV comienzan las luchas entre los bandos por controlar los núcleos agrícolas. Los bandos –Guraia (Oñacinos) y Bañez (Gamboinos)- fueron los protagonistas del incendio más importante de Arrasate. El incendio se produjo en junio de año 1448, y como consecuencia, los Reyes Católicos abolieron los bandos en 1.490, y el Corregidor de Guipúzcoa formó nuevas Ordenanzas para el régimen municipal de Mondragón.

Los siglos XVI y XVII vinieron marcados por la paz y la prosperidad económica. Los parientes mayores pierden protagonismo, en favor de las oligarquías de las ciudades. Junto a éstos se produce la aparición de personajes notables, como por ejemplo Garibai, Barrutia o los Oquendo. Mientras tanto, fue modificándose el aspecto del pueblo, construyéndose fuera de la muralla los arrabales de Maala y Zarugalde.

El siglo XVIII, y sobretudo el siglo XIX, fueron especialmente conflictivos. El objetivo de las rebeliones fue hacer frente a la subida de los precios de los productos que cubrían las necesidades básicas. En aquella época se produjo más de una guerra contra Francia en Euskal Herria. La guerra de la Convención, contra la revolución Francesa, comenzó en 1793, después de haber sido guillotinado el rey de Francia. En aquel momento los franceses tomaron Gipuzkoa con fuerza y como ya se explicaba en los fueros de Gipuzkoa, se constituyó la Diputación a Guerra en Arrasate, con el objeto de defender el territorio de las invasiones. Unos años más tarde, a partir de 1807 el ejército de Napoleón

HISTORIA

abuztuan- anarkista italiar batek, Angiolillo izenekoak, Espainiako gobernu burua Canovas del Castillo hil zuen Gesalibarko bainuetxean.

Udalatx mendi-hegaletan mea ateratzeak eta burdinaren lanak, Erdi Aroan hasitakoak, industria tradizioa ekarri zion herriari, eta horixe nabarmenduko dugu XX. mendean. Hasieran enpresa batzuek herriaren ekonomia bultzatu zuten. Hona hemen enpresa horietako batzuk: Unión Cerrajera (1906an sortua, "Vergarajauregi y CIA" eta "Cerrajera Guipuzcoana" enpresak elkartzearen ondorioz), ELMA eta beste batzuk, txikiagoak. Gainera, garraiobideetan asko hobetu genuen. Nabarmenduko dugu, adibide gisa, "Vasco-Navarro" trenbidea, mende hasieran inauguratua. Horrek guztiak estatutik etorkinak iristea ekarri zuen. Hala ere, Arrasateren benetako garapen ekonomikoa Gerra Zibilaren ostean gertatu zen, mugimendu kooperatiboarekin batera. ULGOR sortu zutenetik (1956an) kooperatibismoa ikaragarri hazi zen. Garapen ekonomikoa islatzen da Arrasateko biztanle kopurua gehitzen denean, eta horren ondorioz San Andrés, Musakola eta Uribarri moduko baserri auzoak herrigunekoak izatera pasatu ziren. Biztanleriaren hazkunde horrek zenbait eremutan zerbitzuak ere garatzea ekarri zuen: Garraioa, gizarte zerbitzuak, euskara, kultura, kirolak, eta abar.

XXI. mendean, Arrasatek bere industria sendotu eta indartu behar izan du, produktuek lehiakorrak izaten jarraitu dezaten merkataritza globalizatu batean eta Arrasateko biztanleen lanpostuak ziurtatzeko.

se adentró en Gipuzkoa y las tropas tuvieron que expulsar de nuevo a la armada francesa. Pero quizás, fueron las carlistadas las guerras de más importancia, pues trajeron como consecuencia la pérdida de los fueros para Gipuzkoa. A finales del siglo XIX –en agosto de 1897– un anarquista italiano llamado Angiolillo asesino al jefe de gobierno español Canovas del Castillo en balneario de Santa Agueda deGesalibar.

La extracción de mineral en las faldas de Udalaiz y el trabajo del hierro, iniciado en la Edad Media, darán lugar a una tradición industrial que que se manifestará a lo largo del siglo XX. En sus inicios algunas empresas impulsaron la economía del pueblo. He aquí algunas de estas empresas: Unión Cerrajera (creada en 1906 como consecuencia de la unión entre las empresas "Vergarajauregi y CIA" y "Cerrajera Guipuzcoana"), ELMA y otras de tamaño más reducido. Además, se produjo una mejora en los medios de transporte. Hay que destacar aquí como ejemplo el ferrocarril "Vasco-Navarro", inaugurado a principios de siglo. Todo esto trajo consigo la llegada de inmigrantes del estado. Sin embargo, el verdadero desarrollo económico o de Arrasate se produjo después de la Guerra Civil, junto con la aparición del movimiento cooperativo. Desde que se creó ULGOR (en 1956) el cooperativismo creció de forma extraordinaria. El desarrollo económico se refleja en el crecimiento de la población de Arrasate, y como consecuencia de ello los barrios rurales como San Andrés, Musakola y Uribarri pasaron a ser parte del casco urbano. Este crecimiento de la población trajo consigo, también, el desarrollo de servicios en distintos ámbitos: transporte, servicios sociales, euskara, cultura, deportes, etc.

En el siglo XXI, Arrasate ha tenido que consolidar y reforzar su industria, para que los productos sigan siendo competitivos en un comercio globalizado y para asegurar los puestos de trabajado de los habitantes de Arrasate..

Udalaizko ikuspegia Bedoñatik/ Vista de Udalaiz desde Bedoña



ARRASATE - MONDRAGÓN

ZERBITZUAK / SERVICIOS

Pag.

Udalbatza / Corporación Municipal	16
Arreta Zerbitzua	17
Kultura / Cultura	17
Gizarte Zerbitzuak / Servicios Sociales	18
Hezkuntza / Educación	19
Euskara / Euskara	22
Ingurumena / Medio Ambiente	22
Gazteria Saila / Área de Juventud	23
Berdintasun Saila / Área de Igualdad	24
Enplegua / Empleo	25
Osasuna / Sanidad	33
Kirolak / Deportes	36

ARRASATEKO ZINEGOTZIAK

IZEN-ABIZENAK	TALDEA
AZKARRAGAUZAR LARREA, INAZIO	BILDU
LARRAÑAGA GALDOS, AMAIA	BILDU
RODRIGUEZ LEJARZA, ANDER	BILDU
LANDALUZE RUIZ DE ALEGRIA, JOSEBE	BILDU
PEREDA LECETA, JOSU	BILDU
MORRAS AZPIAZU, MAIDER	BILDU
ARREGUI BIAIN, OMER	BILDU
ZEZIAGA MENDIZABAL, IRATXE	BILDU
BARRIOCANAL ARRIETA, JUAN ANTONIO	BILDU
ASKASIBAR, ZENDOIA, JOSEBA ERRAMUN	BILDU
URTEAGA GARCIA, KEPA	BILDU
GARITANO EZKURRA, JUAN CARLOS	EAJ
UBARRECHENA CID, MARIA	EAJ
ARRUPE ALDECOCEA, IBON	EAJ
MENDIETA GARAY, JUAN RAMON	EAJ
ARRIETA KABIKETA ARITZ	PSE-EE
DIAZ LARRAKOETXEA, RAQUEL	PSE-EE
GARCIA RAYA, FRANCISCO	PSE-EE
LANA JAUREGI, MIREN LOREA	PSE-EE
LAMARAIN CENITAGOYA, ICIAR	PP
ETXEBERRIA IZTUETA, JOXE	ARALAR

UDAL BATZORDEAK / COMISIONES MUNICIPALES

- OBRA, ZERBITZU, MANTENTZEA ETA AUZOAK/OBRAS, SERVICIOS, MANTENIMIENTO Y BARRIOS:**J.A. Barriocanal Arrieta (BILDU)
- GIZARTE ONGIZATEA / BIENESTAR SOCIAL:** Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)

- ITURBIDE EGOITZA:** Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
- GAZTERIA / JUVENTUD:** Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
- BERDINTASUNA/ IGUALDAD:** Maider Morras Azpiazu (BILDU)
- AUKEA:** J. E. Askasibar Zendoia (BILDU)
- ENPLEGUA / EMPLEO:** J. E. Askasibar Zendoia (BILDU)
- PERTSONALA / PERSONAL:** Maider Morras Azpiazu (BILDU)
- INGURUMENA / MEDIO AMBIENTE:** Josu Pereda Lezeta (BILDU)
- HIRIGINTZA / URBANISMO:** Omer Arregi Biain (BILDU)
- HEZKUNTZA / EDUCACIÓN:** Amaia Larrañaga Galdos (BILDU)
- EUSKARA :** Joxe Etxebarria Iztueta (ARALAR)
- KULTURA ETA JAIK / CULTURA Y FIESTAS:** Kepa Urteaga Garcia (BILDU)
- OGASUNA / HACIENDA:** Iratxe Zeziaga Mendizabal (BILDU)

HERRIKO AUZOETAKO ALKATEAK / ALCALDES DE BARRIO:

- ERDIALDEA:** Marijo Jimenez Benito
- MUSAKOLA:** Iban Goñi Uranga
- SAN ANDRES:** Jon Barriocanal Baza
- SANTA MARINA:** Raquel Diaz Larrakoetxea
- URIBARRI:** Kristina Zeziaga Mendizabal

BASERRI AUZOETAKO ALKATEAK

- MEATZERREKA:** Unai Arana Narbaiza
- MUSAKOLA:** Andoni Kepa Bedialauneta
- SAN ANDRES:** Luis Ugalde Mendieta
- UDALA:** Iñaki Albizu Landa
- GESALIBAR:** Maitane Unamuno Marcos
- GARAGARTZA:** Igor Orobengoa Lasa
- URIBARRI:** Kristina Zeziaga Mendizabal
- BEDOÑA:** Joxe Mari Unzueta Sudupe
- ZALDIBAR:** Jose Agustin Iriarte Larreategi

SINDIKATUAK / SINDICATOS

- ELA** Otalora Lizentziaduna 22-24 943 79 45 09
- LAB** Garibai etorbidea, 14 943 79 74 08
- UGT** Garibai etorbidea 6, behea 943 79 03 74

BAKE EPAITEGIA / JUZGADO DE PAZ

Ignacio Zuloaga kalea 6, behea 943 79 12 78

HELBIDEA / DIRECCIÓN

Arano eta Garcia maisu-maistrak kalea 8;20500-ARRASATE Tel.: 943 252000 / Arrasatetik 010 Fax: 943252050 E-posta: baz@arrasate-mondragon.net

ORDUTEGIA / HORARIO

Astelehenetik egubakoitzera arte: 8:30 - 19:00 / Zapatuan: 9:00 - 13:00 (Abuztuan: astelehenetik egubakoitzera arte 8:30 - 14:00) / De Lunes a viernes: 8:30 - 19:00 / Sábados 9:00 - 13:00 (Agosto: de lunes a viernes 8:30 - 14:00)

HELBURU OROKORRAK

Biztanleen Arreta Zerbitzua da Udal osorako leihatila bakar legez diharduen udal zerbitzua.

Oinarrizko eginbeharrak:

- Informazioa: Udalarekin nahiz udalerrirekin zerikusia duten gauza guztien inguruko informazioa ematea.
- Udal izapideak kudeatzea
- Agirien erregistroa: Herritarrek Gipuzkoako Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara bidali beharreko idatzi guztiak erregistratzea.
- Kexak, abisuak eta iradokizunak jaso, kudeatu eta herritarrei udalaren erantzuna ematea.
- Aldez aurretik ordua ematea udal teknikariekin nahiz politikariekin egoteko.
- 010 telefonoa: informazioa ematea, udal izapide sinpleak kudeatzea eta izapide guztien inguruko informazioa bidaltzea etxera.
- Beste zerbitzu batzuk: galdutako gauzak, LANBIDE...

OBJETIVOS GENERALES

El Servicio de Atención Ciudadana es el servicio municipal que ejerce de ventanilla única para todo el Ayuntamiento.

Tareas principales:

- Información: ofrecer información sobre cualquier asunto que tenga que ver con el ayuntamiento o el municipio.
- Gestionar los tramites municipales.
- Registro de documentos: registrar todos los escritos que los ciudadanos tengan que enviar a la Diputación Foral de Gipuzkoa o al Gobierno Vasco.
- Recoger y gestionar las quejas, avisos y sugerencias y dar la respuesta desde el ayuntamiento a los ciudadanos.
- Dar cita previa para estar con los políticos o los técnicos municipales.
- Teléfono 010: dar información, gestionar los trámites municipales simples y enviar a casa información acerca de cualquier trámite.
- Otros servicios: objetos perdidos, LANBIDE...

EGITEKO NAGUSIAK

- Herritarrentzat kultura eskaintza bultzatu eta koordinatzea
- Hileroko Kultura eskaintza jasotzen duen Kultura gida kaleratzea
- Herriko elkarteekin harremanetan jardutea ekintzak garatu eta baliabideak erazteko
- Herriko jai nagusien kudeaketa

PRINCIPALES MISIONES:

- Fomentar y coordinar la oferta cultural para los ciudadanos.
- Publicar la Guía cultural mensual con la oferta cultural
- Desarrollar y facilitar los medios para las acciones culturales que se realizan en conjunto con las asociaciones del pueblo.
- Gestionar las fiestas patronales.

KULTURA ZERBITZUAK / SERVICIOS CULTURALES

- Kulturarte** Azoka, 1 943 25 20 25
- Udal biblioteka** 943 25 20 25
- www.arrasate-mondragon.net/biblioteka
- KZ gunea** 943 79 35 54
- Kultura saila** 943 25 20 20
- kultura@arrasate-mondragon.net
- Amaia Udal Antzokia** 943 77 05 94
- Santa Marinako auzo biblioteka** 943 71 19 25

KULTURA ELKARTEAK / ASOCIACIONES CULTURALES

- Arrasate Musikal Zarugalde, 2 943 77 05 40
- Goikobalu Abesbatza Nafarroa etorbidea, 2
- Trikitrixa eskola Nafarroa etorbidea, 2
- Goikobalu Babesbatza Nafarroa etorbidea, 2
- Arrasateko Gaiteroak Nafarroa etorbidea, 2
- Udalaxpe Txistulari elkarte Nafarroa etorbidea, 2
- Ttakun txalaparta taldea Nafarroa etorbidea, 2
- Izaskun Murgia elkarte liriko Nafarroa etorbidea, 2
- Txorbela Otxotea
- Arrasate Zientzia elkarte
- Intxorta 1937 elkarte
- Portalo elkarte
- AED elkarte Pablo Uranga, 4 behean 943 77 12 28
- EKIN emakume elkarte.....
- Txatxilpuri elkarte Nafarroa etorbidea 23 943 79 54 46
- SUDC elkarte Nafarroa etorbidea 23 943 71 24 24
- Arrasateko Erraldoi eta Kilikien konpartsa
- Lore Gazteak Dantza taldea.....
- Txikitxu Arrostitz Dantza taldea.....
- Doke antzerki taldea Nafarroa etorbidea, 2
- Arrasate Margo taldea
- ARTE Tailaginen elkarte
- Loixe zeramika taldea
- Arkodi elkarte Ferrefias, 28 behea 943 79 78 37
-www.mondraberri.com
- Centro cultural Al Andaluz Zigarrola 1 943 77 03 28
- Centro cultural "Corazón de Encina" Araba etorbidea 943 79 11 75



ONARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

■ **SERVICIOS SOCIALES DE BASE** Herriko Plaza, 1 943 252 007

- Herritarren giza beharrak betetzen lagundu, bideratu eta informatu egiten duen zerbitzua.
- Zentru honetan, Gizarte Laguntzailearen bitartez arazo familiarrak edota pertsonalak dituzten familiei, adin-txikikoei, agurei eta gazteei arreta eskaintzen zaie.
- *Servicio donde se informa, orienta y ayuda a resolver las necesidades sociales de los ciudadanos.*
- *En este centro, por medio de una Asistente social, se presta atención a familias, menores, ancianos y jóvenes en situación de dificultad personal o familiar.*

DROGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIO SAILA

■ **ÁREA DE PREVENCIÓN DE DROGODEPENDENCIAS** Herriko Plaza, 1 943 252 007

- Prebentzio programen garapena.
- Gaiari buruzko dokumentazioa eta laguntza.
- Jarduera proposamenak jasotzea.
- *Documentación y Orientación del tema.*
- *Desarrollo de Programas preventivos.*
- *Recogida de Propuestas de Actuación.*

ITURBIDE ZAHARREN EGOITZA

■ **RESIDENCIA DE ANCIANOS ITURBIDE** Zerkaosteta 11 943 252 090




ADINEKOEN ELKARTEAK / ASOCIACIONES DE LA 3ª EDAD.

■ **ABAROA ELKARTEA** Etxaluzte eraikina, Araba et.1 943 798 157
 ■ **MUSAKOLA ELKARTEA** Gipuzkoa etorbidea, 50 943 771 266
 ■ **TOKI ARGI ELKARTEA** Agerre plaza z/g 943 770 059
 ■ **URIBARRI ELKARTEA** Usatxe plaza 6, etxabea 943 771 829

HERRIKO BESTE ELKARTE BATZUK/ OTRAS ASOCIACIONES LOCALES

■ **CÁRITAS** Abade etxea, Iturriotz 43 943 791 887
 ■ **NAGUSILAN** Arrasate pasealekua 3, etxabea 943 792 585 www.nagusilan.org
 ■ **AFAGI** Arrasate pasealekua 3 943 297 118 www.afagi.org
 ■ **ATECE** Azoka 4, behea 943 792 807 atecearrasate@terra.es
 ■ **ADAHIGI** Jose Luis Iñarra 32 www.adahigi.org
 ■ **ACABE** Jose Luis Iñarra 30 - 32 943796927 www.acabeuskadi.org
 ■ **ASFAMOGI** Arrasate pasealekua 3 943772076 arrasate@asfamogi.org
 ■ **ALKOHOLIKO ANONIMOAK** Arrasate pasealekua 3 629141874
 ■ **HURKOA** Ferrerías 32 943770938 www.hurkoa.org
 ■ **HARREMAN** Ferrerías kales 40, etxabea 943798114 fjruizmunain@ikerlan.es
 ■ **ACTIVOS POR UN MUNDO SOLIDARIO** Dtor Bañez 1, etxabea 943771738
 ■ **BOHERI** Araba etorbidea 42
 ■ **SERSO S. VIATOR** Arrasate pasealekua 10 943771752 www.serso.org
 ■ **MUNDUKIDE** Iturriotz 27 943772010 www.mundukide.org

IKASTETXEAREN IZENA	HELBIDEA	HEZKUNTZA ETAPAK	TFNOAK, E-MAILAK
1) UDAL HAUR ESKOLA Arizmendik kudeatuta	San Andres 8	Haur Hezkuntza (0-3)	Tel.:943-772025 www.arizmendi.eu www.arrasate-mondragon.org
2) BEDOÑABE HAURRESKOLA	Alfonso VIII kalea, 1	Haur Hezkuntza (0-2)	Tel.: 943-797686 bedonabe.arrasate@haurreskolak.net
3) MUSAKOLA HAURRESKOLA	Elkano kalea 8	Haur hezkuntza (0-2)	Tel.: 943791303 musakola.arrasate@haurreskolak.net
4) ARRASATE HERRI ESKOLA	Administrazioa: Erguin eraikinean Uribarri auzoa, 36		Tel.: 943-797774 www.arrasateherrieskola.hezkuntza.net Posta-e.: arrasateesk@goieskola.net
• ERGUIN ERAIKINA	Uribarri 36	Lehen Mailako Hezkuntza	943-797774
• BEDOÑABE ERAIKINA	Alfonso VIII, 1	Haur Hezkuntza	943-792069
• MUSAKOLA ERAIKINA	Elkano kalea 10	Haur Hezkuntza	943-790449
5) ARIZMENDI IKASTOLA	Administrazioa; Otalora Litzentziatua 8		Tel.:943-772025 www.arizmendi.eu Posta-e: arizmendi@arizmendi.ikastola.net
• UMEZAINZA GUNEA	San Andres 8	Haur Hezkuntza	Tel.:943-772025
• OLARTE GUNEA	Olarte kalea z/g	Haur Hezkuntza	Tel.:943-772025
• URIBARRI GUNEA	Uribarri z/g	Haur Hezkuntza	Tel.:943-772025
• SANTA TERESA GUNEA	Galizia kalea 10	Haur eta Lehen Mailako Hezkuntza	Tel.:943-772025
• GAZTELUONDO GUNEA	Gazteluondo 2-4	Haur eta Lehen Mailako Hezkuntza	Tel.:943-772025
• ARIMAZUBI GUNEA	Arrasate Pasealekua 18	Haur eta Lehen Mailako Hezkuntza	Tel.:943-772025
• GAZTELUPE GUNEA	Arrasate Pasealekua 10	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Heziketa zikloak	Tel.:943-772025
• FERIXALEKUA	Otalora Litzentziatua 8	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Tel.:943-772025
6) ARRASATE INSTITUTUA	Santa Teresa kalea, 25		Tel.:943-794447 www.arrasatebhi.hezkuntza.net Posta-e.: iarrasate@euskalnet.net
• GOIKO ERAIKINA	Santa Teresa kalea 25	Batxilergoak	Tel.:943-798300
• BEHEKO ERAIKINA	Santa Teresa, 25	Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza	Tel.: 943-792038
7) MONDRAGON UNI-BERTSITATEA	Erretoretza Loramendi kalea, 4 23 p.k.		Tel. 943712185 info@mondragon.edu www.mondragon.edu
